

IZENBURUA : Daniel Landart

INTERESA :

- Ahozkoztatunari leku gehiago eman informazio berriak hartzerakoan

HELBURUAK :

- Idazle berri baten biografiaz xehetasunak hartu entzunezko dokumentu baten bidez.
- Entzumenari esker bildu informazioak ahozkoan eman beste ikasleen aitzinean.
- Literatur obra bat ikusten hasi.

GRABAKETA :

- <http://nagusia2.interne.dddikas.dyndns.org/~site/spip.php?article117>
- http://www.argos64.fr/ilias/repository.php?ref_id=13422&cmd=view

FORMATUA :

mp3

IRAUPENA :

1 mn 30 s

PISUA :

1,4 Mb

TESTUA :

Daniel Landart euskal idazle bat da.

1946eko abenduaren 11an sortu da Baxe Nafarroako Donoxtiri herrian.

Herriko eskolan ibili ondoan, hameka urtetan, Hazparneko kolegioan ikasketak hasi zituen baina osagarri eskasez utzi behar ukan zituen eta lanean hasi zen inprimeria edo moldiztegi batean Baionan.

Egun, Euskal Kultur Erakundeko zuzendari ordea da Uztaritzen.

Dotzena bat antzerki idatzi du, hala nola *Bai ala ez*, *Etxe gabeak*, *Gezur mezur* besteak beste eta bere haur denborako orroitzapenak biltzen dituen liburu bat, *Aihen ahula* deitzen dena eta hiru aldiz argitaratua izan dena.

Bere azken eleberria *Battitta handia* deitzen da.

Entzun duzuna, Daniel Landart idazlearen biografia da. Orai galderak erantzun behar dituzu paper batean.

- Zein urtetan sortu da eta non ?
- Zergatik ez zituen ikasketak bukatu ahal izan ?
- Non lan egin zuen ?
- Zer egiten du orai ?
- Zer idatzi du ?
- Nola deitzen da haren azken eleberria ?